

Egunak joan, egunak etorri egoera bera arratsaldero errepikatzen zen Zarautzen. Biek bazekiten ondo bestea non kokatzen zen eta ahalik eta gertuen egoten saiatzen ziren. Abuztuko arratsalde batean, azkenik, ausardiaz beteta, Aneri hitz egitea erabaki zuen Martinek.

- Kaixo. - Esan zion, burumakur.
- Kaixo. Erantzun zion Anek, bestearen lotsaz ohartuta. Egia esan, egoerak ez zion batere gogaitzen. Gustuko zuen.

Itsasbazterrean ziren biak, bainu goxoa hartzeko prest.

- Martin dut izena, eta zuk?
- Ane.

Eta elkarrekin sartu ziren uretara, olatu txikiak gaintutuz. Orduak eman zituzten elkarren berri jakiten eta, alde egiteko garaian, Aneren ama gerturatu zitzaien.

- Ane! Laster ilunduko du, etxera joan behar dugu. Agurtu zaitez eta batu zure gauzak agudo!

Une magikoa hautsiz, familiak alde egin zuen eta lagun-taldea ere elkarrekin afaltzera joan zen.

Anek ez zuen Martin berriro ikusi. Uda amaitu zen eta hondartzako egun horiek ere bukaerara iritsi ziren. Ikasturte osoa eman zuen Anek Zarautzen ezagututako mutila gogoratzen, berriro noiz ikusiko zuen galdetzen. Baina une hori ez zen iristen. Ezta hurrengo udan ere.

Pena handiz, bere bizitzarekin jarraitu zuen Anek eta esperantza erabat galduta zuenean, espero ez zuen unean, Martinen begiradarekin topo egin zuen.

Unibertsitateko lehen ikasturtea zen eta Ane etapa berriarekin urduri zegoen. Askok kostatu zitzaion zer nahi zuen ikasi aukeratzea eta, azkenean, zuzenbide fakultatean eman zuen izena. Hori bai, Martin klase berean ikusi zuenean, hartutako erabakia inoizkorik zehatzena, egokiena zela berretsi zuen.

Martin aho zabalik gelditu zen. Berak ere ez zuen espero Zarauzko neskarekin topo egingo zuenik eta, zer egin ez zekiela, irria bota zion azkenik. Eta minutu baten ondoren, hurbildu ere hurbildu zitzaion.

- Ane... - Zer gehiago esan ez zekiela gelditu zen.